

KOSTU EGITURA

Zein dira gure proiektuaren kosturik garrantzitsuenak?

Gure enpresaren **kostuen egitura** osatuko dute negozioa aurrera eramateko behar ditugun gastu guztiek; alde batetik, **kostu finkoak** izango ditugu, hala nola lokalaren hipoteka, langile finkoen soldatak, aseguruak, webgunearen mantentzea eta argindarra, hauek ekoizpen-maila aldatu arren berdin mantentzen direlako; bestetik, **kostu aldakorrak** sortuko dira ekoiztitako arropa kantitatearen arabera, adibidez oihalak eta materialak, bidalketak, modisten lan-orduen gehigarriak eta paketeak. Gainera, denborarekin **eskala ekonomiak** lor ditzakegu, material gehiago erostean prezio hobeak eskuratuz eta unitate bakoitzeko kostua jaitsiz, eta **hedadura ekonomiak** ere sortuko dira baliabide berdinak (tailerra, makineria, langile espezializatuak) produktu desberdinak egiteko erabil daitezkeelako. Azken batean, kostuen egitura gure enpresaren oinarria da eta ondo planifikatzea ezinbestekoa da gastuei aurre egiteko eta negozioa bideragarria izateko.